



Irailaren 26an Barakaldoko Gazte Asanbladak bilera berezi eta irekia egingo du Makala II gaztetxean 12:00etatik aurrera. Bilera honen helburua ikasturte berrirako plangintza eta urtean zehar egingo diren ekimenak prestatzea izango da, gazte guztien artean. Gazte Asanbladatik Barakaldoko gazteei bertan parte hartu eta ekarpenak egiteko deia luzatu die. Gogoratu dute Barakaldoko Gazte Asanblada elkarte irekia, antikapitalista, feminista, ekologista, euskalduna... dela eta asanblada horizontalean antolatzen dela.

Barakaldoko Gazte Asanbladaren prentsa oharra:

BARAKALDOKO GAZTE ASANBLADA

 barakaldogaztea.blogspot.com.es  @OkupiBaraka

IRAILAK 26, LARUNBATA, 12:00TAN KURTZO HASIERAKO BILERA MAKALA II GAZTETXEAN

- BGA gure herriko hainbat gaztek osatzen dugun okupazio eta autogestioaren aldeko kolektibo ireki, feminista, euskaldun eta antikapitalista da.
- Asanblada horizontalen bidez antolatzen gara, erabakiak guztion adostasunarekin hartuz.
- Azken urtean lan sozio-politiko eta kultura zein aisialdi askea (tailerrak, kontzertuak, hitzaldiak...) landu dugu gazte ikuspegitik espazio aske bati loturik: MAKALA II.
- MAKALA II Gaztetxea administrazioaren kontrol eta mugetatik at eta edozein gazteri eta herritarri irekia dago.
- MAKALA II Gaztetxea proiektu alternatiboen sustatzaile eta gazteria kritikoaren bilgune bilakatzeko talde zabalagoa osatu nahi dugu.

HURBILDU ZAITEZ!

Bultzatzen GAZTE ANTOLAKUNTZA!

